

FORO ERREGULARRERAKO INFORMAZIOA – 2019KO URRIA

KONPROMISOAREN IZENA: 5. INTEGRITATEAREN EUSKAL SISTEMA

1. FASEA: 2018-2019

- 1) Entitate / pertsona parte-hartzaileak (adierazi entitate publikoen eta pribatuen %, emakumeen eta gizonen %).

Guztira: 24

Emakumeak: % 58,3 (14)

Gizonak: % 41,6 (10)

Herritarrak: % 25 (6)

Entitate pribatuak: % 4 (1)

Instituzioak: % 24,2 (17)

- 2) Konpromiso-taldeak eta foro irekiak egindako bilerak (adierazi bilera-kopurua eta parte-hartzaileen zenbaketa orokorra)

Taldearen 5 bilera egin dira: lehena, taldea eratzeke, eta beste 4, konpromisoari buruz hausnartzeko eta lan egiteko.

Talde eratzea: 2018/10/15

Konpromisoa landuz: 2019/01/29; 2019/03/05; 2019/07/01; 2019/10/09.

Bileretara, batez beste, 14-16 lagun bertaratu dira.

- 3) Mugarri/entregagai nagusiak orain arte (estekak jarri)

- ✓ Taldea eratzea
- ✓ Nazioarteko eta EAEko mapaketa
- ✓ Eredua:
 - Ereduen hasierako zirriborroa
 - Parte-hartze prozesua: aurrez aurrekoa eta online
 - Ereduen bigarren bertsioa (proiektu pilotuen eta beste konpromiso-talde batzuen hausnarketen emaitzekin aberastu daiteke, batez ere kontu ematea eta, neurri txikiagoan, open eskola)
 - Ereduen printzipioak definitzea

Prozesuan: prestakuntza-programa eta ereduen kontrola eta jarraipena zehaztea.

Definitu gabe: konpromisoaren ebaluazioa

Esperientzia pilotuak: abian



Jarraipena. 2019.docx

- 4) Orain arteko zailtasun nagusiak (adierazi zein izan diren eta nola egin zaien aurre)
- ✓ Taldea eratzea: elkarte edo erakunde pribatuek parte hartzeko zailtasuna. Aitzitik, etika publikoan eragin handia duten esparruetan adituak diren herritarrak (6) ditu taldeak.
 - ✓ Herritarren parte-hartzea: aurrez aurreko saioetan pertsonak benetan parte hartzeko zailtasunak. Online inkestari dagokionez: parte-hartzea zenbakiz egokia izan zen, baina haren interpretazioa zaila izan zen, askotariko erantzunak eman baitziren.
 - ✓ Erakundeen arteko akordioa baldintzatu duten etikari eta zintzotasunari buruzko arauak edo proiektuak egotea.

- 5) Kronograma betetzea (adierazi aurrerapenak OGPri emandako konpromiso-fitxan deskribatutakoaren arabera)

3. Galderan erantzunda, zehazki "Jarraipena" izeneko dokumentuan

- 6) Pilotuen egoera – hala badagokio – (erakunde parte-hartzaileak eta proiektuen helburuak)

Helburua: ereduaren elementuak erakundeetan ezartzea, prestakuntza- eta bideratze-prozesu batekin batera, hiru fase hauetan: etika publikoaren garrantziaz sentsibilizatzea; ereduari buruzko informazioa ematea, eta inplementatzea. Prozesu hori guztia erakunde guztiek eta parte hartu duten pertsona guztien artean egindako ebaluazioarekin amaituko da.

Proiektuen ezarpenak Gubernanceren laguntza izango du.

Garatzeko orain arte egindako urratsak:

- ✓ Pilotua egiteko izendatutako erakundeak: Ermuko Udala, Arabako Foru Aldundia eta Donostiako Udala.
- ✓ Pilotuen prestakuntza-prozesua definitu eta adostu da.
- ✓ Hiru erakundeetan mimoren hasiera-data adostua.

Hasiera: 2019ko urriak 21

Amaiera: 2020ko maiatzak 30

2. FASEA: 2019 - 2020

1) IRM gomendioak (adierazi zer urrats egingo diren gaiari heltzeko)

IRM: onartzen du konpromisoaren garrantzia, baina ez du uste jarduera publikoari buruzko informazio-sistema aurreratuen bidez gobernu gehiago irekitzea ekarriko duten elementuak dituenik. Agian, etorkizunean eragina izan dezake kontu-ematean, baina planaren indarralditik kanpo geratzen da.

Hiru gai aipatu ditu: ustelkeria, parte-hartzea eta kontu-ematea. Horiei erreparatuko diegu:

Ustelkeria:

IRM: ez dago mekanismorik, baina antzeko BPGa duten beste eskualde batzuekin alderatuta, EAEn duen eragin eskasa aitortzen dute.

5. konpromisoa: protokolo bat egitea barne hartzen du, gai horri buruzko praktika garrantzitsuenak jasoko dituen, baina nekez gauzatuko da plan hau indarrean dagoen bitartean.

Parte-hartzea:

IRM: parte hartzeko mekanismoen eskaintzaren eta parte-hartze eraginkorraren arteko asimetria.

Gure proposamena: Prestakuntza-programak "Open Eskolak" delakoen bidez, eta herritarren parte-hartzea sustatzea ereduak aurreikusten duen espazioan (ez daude zehaztuta ez bere funtzioak, ez herritarren parte-hartzea nola antolatuko den). Berriz ere, planaren indarralditik kanpo dago.

Kontu-ematea:

IRM: Kontuak ematea konpromisoak betetzeari buruzko informazioa ematean datza, eta sozietateak ez du identifikatutako mekanismorik konpromisoak bete ezean ezer exijitzeko edo zehatzeko.

OGP Euskadi: OGP Euskadik egin zituen alegazioetan aipatzen zuen garrantzitsua dela kontuak ematea helburu honetan, eta aipatzen zuen Integritatearen eta Gobernu Onaren Euskal Sistemaren webgune bat, herritar guztientzako kontsulta- eta kexa-kanala jasoko duena.

Gure proposamena: Web orri bat egitea, Espazioari lotuta, sistemaren kontu orokorrak eman ahal izateko, baina ez da gauzatuko hura eratu arte, eta zalantza handiak daude herritarrei irekitako salaketa-kanal bat izan ote daitekeen.

2) Epe laburrean jorratu beharreko konpromisoaren erronka nagusiak (adierazi zeintzuk diren eta zein neurri aurreikusten diren horiei heltzeko)

- ✓ Aipatutako proiektu pilotuak eta haien ebaluazioa
- ✓ Prestakuntza-programak eta osotasuneko hezkuntza-programak amaitzea, eta prestakuntza-sistemen jarraipena eta ebaluazioa egiteko nazioartean identifikatutako erreferentzia-ereduak aztertzea. Garaiz amaitzea aurreikusten da.
- ✓ Konpromisoaren beraren ebaluazioa: gure ustez, komenigarria da konpromisoen ebaluazio-eredu komun bat egotea.

3) Komunikazioa eta kontuak ematea – Nola egingo den landutakoa publiko desberdinei jakinarazteko, nola erraztuko den ekarpenak/hobekuntzak jasotzea irekian, ebaluaziorako tresnak ...

- ✓ Informazioa webgunearen bidez eta tartean dauden erakundeek erabil ditzaketen gainerako kanalen bidez.
- ✓ Dokumentua bertan parte hartu duten pertsona guztiei bidaltzea, eta, bereziki, parte-hartze prozesuan aritu ziren guztiei.
- ✓ Azken dokumentua Talde Sustatzailean dauden erakundeei helaraztea. Foroetan aurkeztea.
- ✓ Komunikabideei laburpenak bidaltzea eta gaiari buruzko jakin-mina pizten saiatzea.

Nola erraztu ekarpenak/hobekuntzak irekian? Erantzun zaila gure konpromisoaren kasuan, testua adosteko zailtasunak direla eta.